

noaua



**Usurbilgo oroimen historikoak
erakusleiko berria du**

**Larunbatean Zubietan,
Euskal Inauteri jaia**

**Iñurri elkartearen (Min)bizi podcasta:
“Baliabideak eman nahi
dizkiogu minbizia pasatzea
tokatu zaionari”**



URTINEA

San balentin egunean...
era guztietako aukerak oparitzeko!

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

Turkia



IRTEERA 2023ko maiatza

Rhin itsasbidaia



IRTEERA 2023ko ekaina



Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

ORIANTE BHI

BI ERAIKIN, INSTITUTU BAT!

DBH-ko IKASLEEN ONARPENA 23-24
OTSAILAREN 13-tik 24-ra



Landaberri eraikina DBH 1-2
Pintore 2,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 94



Larrekoetxe eraikina DBH 3-4 eta Batxilergoa
Buenos Aires aldapa 1,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 97



www.oriarte.eus

12-18 urte
DBH-Batxilergoa
Jangela zerbitzua
Euskal kultura eta
aniztasuna bultzatuz

Albisteak iruditan

Ate irekien eguna Udarregi ikastolan

Datorren ikasturtean Udarregi ikastolan izena emateko asmoa duten hainbat guraso bertaratu ziren ate irekien jardunaldira. HH hasi nahi duten haurren gurasoak izan ziren gehienak, baina LH eta DBH Udarregi ikastolan egiteko asmoa dutenak ere batzuk izan ziren. Hasierako azalpen eta galderen tartearen ondoren, HH eta LHn interesatutakoek Agerialdeko eraikina ikusteko aukera izan zuten eta DBHkoek, berriz, beheko eraikin gorria bisitatu zuten.

Matrikulazio kanpaina hastear da Udarregin, Aginagan eta Zubietan

Otsailaren 13tik 24ra, matrikulazio epea irekiko da Udarregin, Aginagako Herri Eskolan eta Zubietako Herri Eskolan.

Usurbilgo Udarregi ikastola

Telefonoa: 943 361 216

Emaila: usurbil@ikastola.eus



Udarregi ikastolak aurreko astean antolatu zuen hitzordura jende asko bertaratu zen.

Zubietako Herri Ikastetxea

Telefonoa: 943 37 29 31

Emaila: 012219aa@hezkuntza.net

Aginagako Herri Ikastetxea

Telefonoa: 943 37 20 44

Emaila: 012261aa@hezkuntza.net

Laburrean

Musikorik ez garraio zerbitzuetan

Hala erabaki zuen aste hasieran Espainiako Gobernuako Ministroen Kontseiluak. Aurrerantzean, beraz, osasun guneetan nahiz zentro soziosanitarioetan baino ez da beharrezkoa izango: ambulatorio, ospitale, adineko egoitza edota farmazietan. Baina ez denetan; optiketan edota ortopedia zentroetan ez.

Otsailaren 25ean, 1956an jaiotako bazkaria

Otsailaren 25ean larunbata, eguerdiko 14:00etan elkartuko dira Lukainategi jatetxean. 1956ko kintoen bazkari honetara animatzen direnek aurretik izena eman behar dute. Bi telefono zenbaki hauetako batera deitu:

695 713 969 (Jose Fina)

607 942 458 (Xabier)

Euskal Herriko XIV. Mus Txapelketa martxan da

Usurbilgo kanporaketa otsailaren 10ean Aitzagan. Izen-ematea, 21:30etik 22:00etara. Prezioa: 20 euro bikoteko. Laguntzaileak: Saizar eta Aginaga sagardotegiak, Bruño mariskoak. Garaileek Gipuzkoako finala jokatuko dute martxoaren 11n. Final nagusia, Euskal Herrikoa, martxoaren 25ean jokatuko da.

noa.ua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noa.ua.eus /// www.noa.ua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua.

Disenua: Erroit S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea:

Beatriz Alda, publizitatea@noa.ua.eus

Banaketa:

Iñaki Irazusta,

Iban Maritxalar.

Tirada: 2.930 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia:

Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:

erredakzioa@noa.ua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak



Usurbilgo Udala

Euskal Herrira!



Alazne Arruti

Aginaga biziberritzen

Iazko ekainean, herri kooperatiben inguruan hitz egin nuen txoko honetan. Ez dakit gaia ukitzen nuen lehen aldian ote zen, baina, dena delako hori izen eta abizen horiekin irudikatzeko ariketa egin nuen lehenengo saiakera izan zela ziur nago. Orduantxe hasi bainintzen han-hemenka, burujabetzen gainean leku askotan egiten ari ziren lanketa ezberdinak ezagutzen.

Lanketa hauek ordea, tokian tokiko beharrei erantzuteko abiatu direnez gero, forma, dimentsioa eta estrategia ezberdinak darabiltzate. Eta beraz, ez dira, bere horretan erreplikagarriak. Izan ere, baliatu nahi diren lekuetara egokitzapen maila minimo bat behar dute, etorkizunean iraun eta eraginkortasunez errotzeko.

Garai bertsu horretan, herritar talde bat, Aginagako errealtatearen inguruan sakonago hausnartzeko batzen hasi ginen. Eta informalki bada ere, bileraz bilera, Aginaga beste maila batean biziberritzen hasteko helburua genuela adostu genuen elkarrekin batera. Bost bat lagunez osatutako taldea, Eliza Zaharrean lehenik. Tabernan gero, gainerako guraso, haur eta helduen artean katramilatuak, baina gure jardunean. Eta gaur gaurkoz, hasi gara



“Iaz, herritar talde bat Aginagako errealtatearen inguruan sakonago hausnartzeko batzen hasi ginen”.

ALAZNE ARRUTI

**“Ustekabean,
urte hasierari gogor
heldu diogu.
Eta bidea sigi-sagatsua
izanagatik, aurrera
goaz elkarrekin”**

lehen hazi honen fruituak antzematen.

Bidelagun on eta finak topatu ditugu pausuak ematen hasi ahala. Gipuzkoako Foru Aldunditik prozesu parte-hartzaileei zuzendutako dirulaguntzak ere eskuratu ditugu, eta martxa hartua dugu iaztik.

Lehenik eta behin, Azti-kerrekin batu ginen herriko errealtate ezberdinak ezagutu eta hauen inguruko ondorioak identifikatzeko asmotan. Eta Ekhirri esker, inurri txikien antzera hasi ginen etxez etxe orriak banatu eta behar zuten horiekin betetzen laguntzen, mu-

gikor bidez estekak banatu eta emaitzak jasotzen... harik eta 136 pertsonen erantzunak jaso genituen arte. Eta parte hartu zuten guztiei esker, ariketa ederra izan zen guztion begietatik ikusi eta bizi dugun herriari aurrez aurre begiratzea. Mila esker guztioi, bide batez!

Aldi berean, Olatukoopeko kideak ere ezagutu genituen, eta haiei esker hasi gara pixkanaka egunerokotasuneko arazo eta gabeziak, erronka eta gure baliabide propioen bitartez asetzeko aukera moduan identifikatzen.

Horretarako, abenduan, inkestaren emaitzak elkarbanatu eta gure antzerako egoera bizi izan duten bakaikuarren esperientzia ezagutzeko aukera eduki genuen, aurkezpen saiora bertaratu ginen 34 lagunek. Zalantzak eta inkestaren inguruko balorazioa egiteko tartea eduki genuen, eta Gorka Julio eta Leire Udaberen esku-

tik, hurrengo 2 formakuntza saioetarako proposamena ere bota genuen.

Orduz geroztik, 2 saio egin ditugu. Lehenengoan, kooperatibagintzaren oinarriko kontzeptuak eta ibilbideak izan genituen hizpide, tresna juridiko hauen berezitasunetik hurbilpen bat ere egin genuen. Baina maila teorikoak harago, aurrera begira irudikatzen genituen proiektuen bateratze eta leheneste bat egiten saiatu ginen. Eta oro har, denda baten eta etxebizitzaren beharra, telekomunikazioak, energia, taberna eta jangelaren kudeaketa, turismoa... bezalako gaiak irten ziren.

Azken saioa, duela gutxi izan genuen, otsailaren 2an. Eta bertan, irudikatu genituen proiektu posible horiek, egingarriak eta modu ezberdinetan aseak izan daitezkeela. Bai eta gure etorkizuneko Herri Kooperatibak, hainbat geruza eta parte-hartze mota ezberdin izan ditzakeela ere. Horrez gain, 16 bat pertsonen osatutako taldean, 2-3 urteko bidea begiz jota, Herri Kooperatiba hau non ikusten genuen ere irudikatzen hasi ginen. Puntu horretara heltzeko bide eta urratsak zehazten hastearekin batera.

Beraz, ustekabean, urte hasierari gogor heldu diogu. Eta bidea sigi-sagatsua izanagatik, aurrera goaz elkarrekin!

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

Komikia



Zumetaren murala azalberritu egingo da

9 metroko altuera eta 16 metroko zabalera du eta Usurbilgo nortasun ikur nagusietakoan bilakatu da. 1973an sortu zuen frontoi atzealdeko horma-irudi erraldoia 2020ko apirilean zendu zen Jose Luis Zumeta artista usurbildarrak, Udalaren enkar-guz. 50 urte beteko ditu aurten eta urtemuga ez da inondik inora oharkabean igaroko.

Aldamioz inguratua dago sortze lan ezaguna iragan astetik. “Zeramikazko mural abstraktu hau ikonikoa da Usurbilen eta Usurbildik kanpo: bere dimentsioengatik (16x9) Europan material honetan egindako obren artean dagoenik eta handienetakoa da. Zalantzarik gabe, Usurbil berezi egiten duen elementuetako bat da Zumetaren murala”, Udalak nabarmendu duenez.

Kontserbazio lanak hasi dira
Mende Erdiko ibilbidea egin-



Aurreikuspenen arabera, “bi hilabete beharko dituzte lanak bukatzeko”.

ZUMETAREN MURALA

“Europan material honetan egindako obren artean dagoenik eta handienetakoa da”

da, kontserbazio lanak egitea erabaki dute Usurbilgo Udalak eta Zumeta Arte Estudioak. Ai-

patu moduan, lan hauei ekin aurreko prestaketak abiarazi zituzten urtarrilaren 31n. “Zerregin horretan espezializatua den Ártycó enpresak egingo du lana, eta aldamia muntatzen hasi dira gaur bertan”, berri eman du Usurbilgo Udalak. Aurreikuspenen arabera, “bi hilabete beharko dituzte lanak bukatzeko”. Lan hauetarako

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jasoko du Usurbilgo Udalak.

Agerraldi publikoa

Baina ekimen gehiago ere iragarri dituzte urtemuga nabarmentzeko. Besteak beste, “erakusketak eta Hormaren Mintzoa egitasmoa”. Zumetaren muralaren 50. urtemugari lotutako ekimenen berri zehatzago, igande honetan, otsailaren 12rako deitu duten ekitaldian emango dute, eguerdiko 12:00etan, albiste honetan protagonista dugun lekuan bertan, muralaren parean noski, Mikel Laboa plazan. Antolatzaileek aurreratu dutenez, “Agurtzane Solaberrieta Mesak (Usurbilgo alkateak), Mari Jose Telleriak (Gipuzkoako Kultura diputatuak), Usoa Zumetak, Jon Maia bertsolariak eta 650 Usurbil Bizi proiektuaren gidariak, Azucena Priorek (Ártycóko kidea) eta Mikel Telleria musikariak” parte hartuko dute.

Iralekoen bisita

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako unibertsitateaz kanpoko ikasle-txeetan lanean ari diren irakasleak eta langileak euskaldundu eta alfabetatzen dihardu Irale irakasleen euskarazko prestakuntza zerbitzuak. Donostian duten egoitzako kideak bisitan izan genituen iragan astean NOAUA! Kultur Elkar-tearen egoitzan.

Egun berean, herritik barre-

na euskaraz eragiten diharduten beste gune batzuetan ere bisitak egin zituzten. Osinalde industrialdean kokaturiko Elhuyar Fundazioan “irakasleok lanerako behar ditugun tresnak esku-eskura eman” zizkieten. Sutegi udal liburutegian haur eta gazte literaturaren inguruko azalpenak jaso zituzten Bakartxo Iguaranen eskutik.



Aurreko astean Usurbilen izan ziren eta Elhuyar, Sutegi eta NOAUA! bisitatu zituzten, besteak beste.

Art Pi
Patrimonia
latexea
bazarriak EGUNERO
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA
☎ 943 362725
☎ 688 690 361

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Laster garbigune mugikor bat ibiliko da auzoz auzo

Etxeko hondakinak bererabili, birziklatu eta hiri hondakinaren gaikako bilketa hobetzeko garbigune mugikorra erosi duela berri eman du Usurbilgo Udalak, 34.500 euroren truke. 16.400 euro inguruko Foru Aldundiaren laguntza jaso du. Zerbitzu hau bereziki, Atalluko garbigunera joan ezin duten auzoetako bizilagunei zuzendua egongo da.



Auzo bakoitzean astebetez egongo da. “Astelehen goizero mugituko du udal-brigadak auzo batetik bestera”, udaletxetik aditzera eman dutenez.

Auzo bakoitzean astebetez egongo da, “astelehen goizero mugituko du udal-brigadak auzo batetik bestera”. Guneotan kokatuko dute: Aginaga, Txokoalde, Santuenea, Zubietza, Kalezar eta Usurbilgo kaxkoan. Orain erosi arren, martxoan jasotzea espero du Udalak. Garbigune mugikor berriak hondakin hauek bilduko ditu:

1. Margoak, bernizak, disolbatzaileak, kolak, fitosanitarioak (intsektizidak eta herbizidak),

GARBIGUNE MUGIKORRA

“Orain erosi arren, martxoan jasotzea espero du Udalak”

aerosolak eta horien ontziak (beteak, erdi-beteak zein hutsak).

2. Bolumen txikiko plastikozko ontziak eta buztinezko loreontziak.

3. Pilak.

4. Tamaina txikiko txatarra (lapikoak, zartaginak, metalezko erretiluak, etab.).

5. Material informatikoak.

6. Bonbilla fluoreszenteak.

7. Etxetresna, aparailu eta jostailu elektriko/elektroniko txikiak.

8. Inprimagailuen tinta kartu txoak eta tonerrak.

9. Apurtutako plastikozko eta egurrezko jostailuak.

10. Berrerabil daitezkeen jostailuak eta jolasak.

Dirulaguntzen plan estrategikoa

Udalbatzak urte amaieran onarturiko dirulaguntzen plan estrategikoa, 2023-25 urte artekoa kaleratu zuen Udalak otsailaren 1eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Bertan bilduak daude laguntza lerro edo programa guztiak, eta kasu bakoitzean zeintzuk diren bete nahi diren helburuak, diru kopurua edota aurrekontuaren aplikazioa. 2023. urtean, 819.532 euro bideratuko ditu Usurbilgo Udalak laguntza lerro hauetara guztietara.

Sexu aholkularitza zerbitzua

Aurrerantzean, Xelebreak Aniztasuna taldeak kudeatuko du zerbitzua. Bi astean behin, astelehenetan, 17:00-19:00 artean Kale Nagusia 43an, Parekidetasun Saileko bulegoan (Zumarte ondoan). Harremanetarako:

■ sexuaholku@usurbil.eus
■ 650 232 714.

Santixabeletako Jai Batzordea, martxan



Jai Batzordea aurreko astean batu zen Potxoenean.

2023ko Santixabel jaiak prestatzeko lehen bilera egin zuten Potxoenean ostegunean. Uste baino jende gutxiago hurbildu

zen, baina joan zen urteko jaiari begirada bat eman eta aurtengo jaiari lehen pintzeladak eman zizkieten bertaratutakoek.

Martxoak 8ko egitaraua prestatzen hasi dira



Kafe Tertulia taldeak hasi ditu Martxoak 8 eguneko antolaketa-lanak.

Emakumeen Nazioarteko eguna prestatzen hasi dira Kafe Tertuliako kideak. Aurreko astean batu ziren Potxoenean

eta azken urteetako errepa-soaren ondoren aurtengorako proposamenak luzatu zituzten.

Ipuin lehiaketaren berri, Etumeta AEK euskaltegiaren blog berria

Etumeta AEK euskaltegiak txoko berria du sarean; blogak.eus/etumeta-euskaltegia-aek helbidean hain zuzen. Estreinako post-a zintzilikatu dute, lehenbiziko aldiz antolatu duten Etumeta Literatura Lehiaketari buruzkoa. Aipatu helbide horretan jaso dezakezue txapelketa horren oinarrien berri. Hemen zerrendatuak dituzuenak:

■ Usurbilen erroldatuta dauden 18 urtetik gorako herrikideei nahiz Etumeta AEK euskaltegiaren matrikulatuak daudenei zuzendua dago.

■ Gai librean, euskaraz noski, Times New Roman letran, 12 neurrian idatzi beharko dira, espazio bikoitzarekin. 650 hitz gehienez.

■ Lanek aurrez argitaratu gabeak eta inoiz lehiaketaren batera bidali gabeak izan beharko dute.

■ Lanak apirilaren 17a baino lehen (egun hau barne) bidali beharko dira. Bi dokumentu helarazi beharko dira inaki-d@aek.eus helbidera. Dokumentu batean: ipuina, marka identifikagarriarik gabe, PDF formatuan. Artxioboaren izena ipuinaren izenburua bera izango da: "Izenburua.PDF". Beste dokumentu batean: parte hartzailearen datuak, hau da, izena, bi abizenak, jaiotze data, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa, PDF formatuan. Artxioboaren izena ipuinaren izenburuarekin berarekin



Usurbilen erroldatuta dauden 18 urtetik gorako herrikideei nahiz Etumeta AEK euskaltegiaren matrikulatuak daudenei zuzendua dago lehiaketa.

ETUMETA AEK EUSKALTEGIA

"Txapeldunak 250 euro jasoko ditu. Ekainaren 7ko sari banaketan jakinaraziko da publikoki nor den irabazlea, baina berari emailaz jakinaraziko zaio aldezturik"

identifikatuko da: "Izenburua.datuak.pdf". Etumeta AEK arduratuko da epaimahaikideei lanak bidaltzeaz, identifikatu ez ditzaten, baita, epaia ebatzi ondoren, hura bere egilearen datuekin lotzeaz ere.

■ Epaimahaia: Etumeta AEK euskaltegiak hautatutako hiru kideek osatuko dute.

■ Sariak: txapeldunak 250

euro, aipamena (gehienez bi) 50 euro, oroigarri bana parte hartzaileei. Ekainaren 7ko sari banaketan jakinaraziko da publikoki nor den irabazlea, baina berari emailaz jakinaraziko zaio aldezturik.

■ Ez da inolako pertsona zein kolektiboren aurkako eduki iraingarriarik onartuko.

■ Informazio gehiagorako: blogak.eus/etumeta-euskaltegia-aek

"Zaintzaren iruditeriak literaturan" saioa

Zaintzari lotutako hitzaldi zikloaren baitan, saio hau astebete barru, otsailaren 16an 18:00etan Potxoenean. Katixa Agirre, Uxue Alberdi, Miren Amuriza eta Iratxe Retolaza ariko dira hizlari lanetan.



Kulturpoteari ekin diote Artzabalen

Aurreko astean Kulturpotea zikloari hasiera eman zioten Artzabalen. Hemendik aurrera eta hiru hilabetez, ostegunero 19:00etan hasita kontzertuez eta bakarrizketez gozatzeko aukera izango da Artzabalen pintxoak eta tragoak lagun. Iker Piris izan zen lehen gonbidatua.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.


EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182


JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008


Otar-Goxo
El ikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Hausnarketatik eraldaketarako bidean da Aginagako eskola

2023-24 ikasturterako matrikulazio epea zabaltzear duten honetan, ate irekien eguna antolatu dute Aginagako eskolan, larunbatean, otsailaren 11n, 11:00-12:30 artean. Ikastetxeko proiektua aurkeztu eta bertako azpiegiturak ezagutzeko aukera izango dute hitzordura joan asmo dutenek.

Iaztik hona, espazioa berrantolatua dutela ikusiko dute; hausnarketa prozesu baten emaitza izan da. “Udalari eskatu zitzaion espazio hauek margotu eta txukuntzea”, adierazi diote NOAUA!ri Aginagako eskolatik. Material ahalik eta gutxienez hornitutako Haur Hezkuntzako bi gela egokitu zizkieten, horma txuriek. “Gure eskertza adierazi nahi diegu lerroon bidez”.

Espazio fisikoaren moldaketa hutsetik haratago doa, ordea, egin nahi izan duten egokitzapena. “Giro lasaia sortzeko”, bideratu dituzte lanok. Material organikoak sartu nahi izan dituzte, lehengo kolore ez hain indartsuek eta itxurak haurren aldarrean eragin dezaketela jakitun. Zarata akustikoa ere murriztu nahi izan dute, “lehen



Eskolako espazioa berrantolatu egin dute. Hausnarketa prozesu baten emaitza izan dela esan digute Aginagako eskolako arduradunek.

ATE IREKIEK EGUNA

“Larunbat honetan ate irekien eguna Aginagako eskolan, 11:00etatik 12:30ak bitartean”

beti genituen jarriak haurren abestiak bozgorailuetatik”. Giroa baretu dute orain, “haurren kontzentrazioan laguntzen du. Lasaitasunean gauza gehiago sortzen dira, urduritasunean baino”.

Geldialdia, hausnartzeko

Baretasun horretan zerikusi handia du espazioak. “Ez da leku hutsa”, Aginagako eskola-

tik nabarmendu dutenez. Bertan dauden elementu guztiak kontuan hartu beharrekoak iruditzen zaizkie, “molestatzen ez dutela diruditen horiek” ere bai. Horri guztiari buruz hausnartu ahal izan zuten eskolako ordezkariak iazko ikasturtean parte hartu zuten formazio saioetan. Erdibidera heldu den 2022-23 ikasturte hau jasotakoa martxan jartzeko baliatzen ari dira ikastetxean bertan. “Gure eskolan eraldaketa prozesu baten beharra ikusi genuen. Berritzeguneak mugimendu autonomiari buruzko formazioa jasotzeko eskaintza egin zigun”. Baliagarria iruditu zitzaion. “Eguneroko zurrundi-

loan sartuta, edukiak eta ekin-tzak arrapaladan lantzen ditugu. Hausnarketa prozesuak, aldiz, gure eguneroko lanean geratzeko aukera eman digu; non gauden, zer lortu nahi dugun, zertarako, zer helbururekin, zer eskaini nahi diegun haurrei, familiei. Gauza asko eguneratzen lagundu digu”, aipatu ikastetxetik nabarmendu dutenez. Tartean, “egiten genituen ekinga askori buruz hausnartzea ahalbidetu digu. Egokitzapenen gaia adibidez. Eskola guztiak egiten dute, bi urteko ikasleekin. Sistematizatu dagoen prozesua da. Baina errespetatzen al dugu umeen eta familien erritmoa?”.

Gai hauei buruz hausnartzekoan, aldaketaren beharra sumatu zuten, eta ez espazioa birmoldatzearena soilik. Haur Hezkuntzako geletan, zer materialekin hornitu pentsatu dute, “bi urtekoarentzako bere garapenean laguntzeko balekoa bai baina zazpi urtekoentzat ere baliagarria izan dadin. Askok pentsatu dugu gauza bakoitza zertarako eta zer helbururekin jarri”. Modu horretan, eskolatik diotenez, “umeen garapena errespetatzen da”.

Adin nahasketa, lagungarria

Haiek daude beti, jardun guztiaren erdigunean. Ahal dela, ikasleen interes eta beharretatik abiatuta, erronka txikiak jartzen dizkiete astero eta ikastetxe honetako berezitasunetako bat azaleratzen du horrek, adin nahasketarena. “Bost urtekoak hurbiltzen dira lehenbiziko mailakoen gana, erronka hauek egiten saiatzera. Edo agian lehenbiziko mailako haur bat une

horretan ez dago prest eta nahiago du bi urtekoekin jolasean ibili eta haiei motrizitate fineko beste lantxo batzuk egiten lagundu. Elkarlaguntza handia ematen da handien eta txikien artean”. Adin nahasketa hori bermatzearekin batera, bistan denez, haurren “aldarrea errespetatzen da”. Baina egitekoak ahaztu gabe. “Lanerako hain aldarte indartsua ez badute, nolabait egun batean

atsedenaldia egiteko aukera dute, baina beraiek badakite erronka hori aste horretan zehar egin beharra dutela. Beraz, autonomiaz joka dezakete, duten denbora kudeatu... Gauza asko lantzen dira hala”. Etengabe ebaluatzen dute eguneroko jarduna. “Gure begirada aldatu da, baina gure eskuhartzea ere aldatzen doa”, nabarmendu dute. Eraldaketa prozesua hasi berritan, haurrengan

aldaketarik sumatu ote duten galdetu diegu. “Autonomia maila handiagoa dute, alaiago” sumatzen dituzte.

HH-tik haratago, formazio saio haietan jasotakoa “eskola mailarako ere baliagarria izan da. Eraldaketa eskola mailakoa izan da. HH-n hasi gara eraldaketa prozesu honetarako, baina goiko etapetara eta eskolara zabaltzea aurreikusten dugu”.

Etxealdia, eraldakuntza sakonaren atarian

Auzo bizigarriagoa erakitzeke lanak hastera doaz, datozen urteotan Etxealdia eraldatuko dutenak hain zuzen. Abiapuntu honetan bizilagunekin bildu da Usurbilgo Udala egunotan Potxoenean. Etorkizunerako Etxealdiarako irisgarritasun plana aurkeztu die; azken urtebetean, auzotarren beharrak identifikatu eta gabeziei aurre egiteko lankidetzaren prozesuan urrats berri bat. “Urte mugituak datoz”, iragarri zuten udal gobernutik Potxoeneko bilkuran.

Etxealdia denontzako irisgarriago bilakatzeko bidean, etorkizunean faseka gauzatu asmo dituen eskuhartzeak aurkeztu zizkien auzotarrei. Besteak beste, joan etorriak erraztea ahalbidetuko duten bi igogailu eraikitzea proposatzen du Udalak; bat, Kale Nagusia auzoaren lotuko duena, bestea tren geltoki berrirako bidea Etxealdiarekin komunikatuko duena.

Handik gertu, igogailu gehiago ere eraikiko dituzte, kasu honetan, tren geltoki berrira jaitsi nahiz handik igotzeko. Egun N-634 errepidea zeharkatzen duen zubia ere gorago eraiki eta trenbide gaineratik



Etxealdia denontzako irisgarriago bilakatzeko bidean, etorkizunean faseka gauzatu asmo dituen eskuhartzeak aurkeztu zizkien Udalak auzotarrei.

BI IGOGAILU ERAIKIKO DIRA

“Joan etorriak erraztea ahalbidetuko duten bi igogailu eraikitzea proposatzen du Udalak; bat, Kale Nagusia auzoaren lotuko duena; bestea, tren geltokirako bidea Etxealdiarekin komunikatuko duena”

Atalluraino luzatuko du Eusko Trenbide Sareak. Geltoki berri-

ko lanei laster ekingo dietela iragarri du Udalak egunotan. Aldez aurretik, egunotan eremu horretan dagoen gas hornidura desbideratzeko lanetan ari dira.

Oinezkoak lehenesteko

Irisgarria izan eta egungo trenbideko pasabidea ezabatuko duten geltokiko lanekin batera hastekoak dira baita laster, Etxealdia jaisteko San Esteban kaleko segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko lanak ere. Egun ez bezala,

obrak amaituta, oinezkoak lehenetsiko dituen kalea izango da. Autoak sartu ahalko dira bertatik, baina mantso, denbora tarte murriztu batean (gau partean) aparkatu ahalko dute bertan soilik. “Azpiegiturak hobetzeko baliatuko dira obrak”, berri eman zuten udal gobernu taldetik Potxoeneko iragan asteko bileran. Faseka gauzatu asmo dituzte lanak. Goialdeko lanekin hasi eta gero, tren geltoki berriko lanen amaieran borobilduko dute gainerako kale zatia.

Irisgarritasuna helburu

Auzoko hainbat etxebizitzetarako sarbidea irisgarri bilakatzeko eskuhartzeak ere egin asmo dituzte. Bestalde, N-634 errepide parean zegoen haur parkea eta egoteko lekua metro batzuk auzoan barrura lekuz aldatu eta gune hau aparkalekuetarako baliatzea proposatzen du udal gobernu taldeak.

Egoteko eremu berri bat

ere sortzea ere aurreikusten dute, geltokia auzoaren lotuko duen igogailu eta eskilaren bueltan, baita eskuhartze txikiagoak ere. Usurbilgo Udalaren esanetan, hiruzpalau urte gutxienez beharko dira irisgarritasun plan hau gauzatzeko. Urtero, udal aurrekontuetatik diru partida zehatza bideratu asmo dute Etxealdia bizigarriago eraikitzen.



Usurbilgo Udalaren esanetan, hiruzpalau urte gutxienez beharko dira irisgarritasun plan hau gauzatzeko.

Usurbilgo oroimen historikoak erakusleihu berria du

Beste urrats garrantzitsu bat oroimen historikoaren alorrean. Halaxe aurkeztu zuten ostiral iluntzean Sutegin izen bereko elkarteak, oraindik bukatu gabe dagoen usurbil1936.eus webgune berria. Aurrerantzean, udalerrri honen historiako garai latzenetako baten arrastoak bilduko dituen ataria martxan da.

Baina Usurbil 1936 elkartetik otsailaren 3ko aurkezpen ekitaldian gogorarazi zuten, bukatu gabe dagoen egitasmoa da. Besteak beste, hainbat lekukotza editatzeko izan eta amaitu ahala zintzilikatuko dituzte bertan. Horren harira, herrikideei webgunean barneratzeko gonbita egin zieten. Xehetasun okerrik balego zuzentzea eskatzeko edota lekukotza, dokumentu edota datu berririk izanez gero ekarpenok egiteko deia egin zuten aipatu herri bilgunitik. Bukatu gabe dagoenez, atari dinamikoa izateko jaioa da beraz, usurbil1936.eus. “Garai hartan Usurbilen jazotako gertaera tamalei buruzko erretratu nahiko fidagarria”.

Ekarpenak egiteko deia

Ataria osatzen segitzeko soi-



Usurbilgo oroimen historikoari buruzko informazio zabala topatuko duzue usurbil1936.eus web orrialde berrian.

USURBIL1936.EUS

“Garai hartan Usurbilen jazotako gertaera tamalei buruzko erretratu nahiko fidagarria da”

lik ez, bestelako laguntza ere behar dute baita Usurbil 1936 elkartetik bideratu asmo dituzten egitasmoetarako. Baliabide ekonomikoen beharrea dira eta ezkutuan izan den herriko pasarte latzenetako bat azaleratzen laguntzeko dohaintzak egiteko aukera duzue atari berri honetan bertan. Gai honi buruzko informazio gehiago duenak ekarpena egitera ere animatzen du oroimen historikoaren alde lanean diharduen

elkarteak. Horretarako, usurbil1936@gmail.com helbidera idatzi behar da.

Zerrenda latza

Dena dugu ezagutzeke 1936ko gerraren bueltan gertatutakoaz. “Ezin izan dugu 1936ko gerra pairatu zutenen testigantza zuzenik jaso, zoritxarrez”, dio aipatu elkarteak web orri berrian bertan. Aldiz, gerraren eragina zuzenean pairatutako herritarren oinordekoen ahotik lekukotza ugari jaso ahal izan dituzte. Bildutako izen-abizenen zerrenda ordea askoz luzeagoa da, 360koa. Aipatu elkartetik zehaztu dutenez, zenbakitan, pertsona hauen guztien informazioa bildu ahal

izan dute: 9 fusilatu/exekutatu (2 ezkertiarrek eragindakoak, 7 kolpistek), 48 hildako (frontean, borrokan, espetxean... alde guztietakoak), 74 zauritu (alde guztietakoak), 24 emakume (alde guztietakoak), 3 ume.

Guztiek, modu batean edo bestean, 1936ko gerrak Usurbilen izandako eragin latzarekin nolabaiteko lotura izan zutenak. Ezkutuan zen pasarte latza azaleratu du Usurbil 1936 elkarteak atari honetan. Bada aurkezpen ekitaldian argitu nahi izan zuten beste kontu bat. Web orriko azpiataletako batek “Kolpisten aldean” izena du. Argi utzi nahi izan zuten due-la ia 87 urte “kolpisten aldean” jardundakoen informazioa batu dutela bai, izango zirela tartean “kolpista ideologikoak”, ideologikoki haiekin bat egiten zutenak, baina haien aldean borrokatzera derrigortutakoak izan zirela webgune berrian aipatzen diren hainbat eta hainbat herrikide, edota soldaduska egitera joan eta han harrapatu eta gauza bera, kolpistekin lerrokatzera behartu zituztenak. Usurbil 1936 elkartetik Sutegin nabarmendu zuten, zalan-tza izpirik gabe, atari honetako “atal delikatuena da hau”.

“Webgune dokumentala”

Informazio zabala duzue beraz, garaia zein zen kontuan izanda, argazki edo irudi gutxi noski. Garai hartan egunkarietan Usurbili buruz idatzitakoa jaso ahal izan dute baita. “Webgune dokumental” gisa definitu dute egileek jada sarean zabalik duten erakusleihoa.

Elkartea bera ere zehatzago ezagutzeko aukera ematen du atari berriak. 2020an Usurbil 1936 jendaurrean aurkeztu zutenetik jorratu duten ibilbidea hain zuzen; egokitu dituzten oroimen guneen berri jaso de-

zakezue, egindako omenaldiei buruzko xehetasunak... Udalerrri honen iparraldean nahiz hegoaldean dauden Bordatxo eta Andatza mendietako fronteei buruz bildu ahal izan dituzten aztarnen berri ere bai. Andatzen dauden lubakiak berreskuratzen aritu dira baita, eta tartean, “material asko” jaso dute auzolanean. Besteak beste, “munizioa, botilak, oinezkoak, egunkari zatiak...”. Lan hau ere webgunearekin bezala, “ez dago amaitua”, ohartarazi dute Usurbil 1936 elkartetik.

Kultur-etxeko auditoriora

joandakoek biziki eskertu zuten webgune berri honen sorrera. Bereziki, iragan latz haren azarnak biltzeko eginiko ahalegina, usurbildarren lekukotzak jaso izana nabarmendu zuten. Baita eginiko lanketa itzel honen Usurbilgo oroimen historikoaren transmisioan izango duen eragina; zehazkiago esanda, hezkun-tzarako baliagarria izango den materiala dela ere gogorarazi zuten, ikasleekin lantzeko baliabide aproposa.

Eskertutako ahalegina

Usurbil 1936 elkartetik atari

berri hau martxan jartzea ahalbidetu zutenak goraiatu eta eskertu nahi izan zituzten. Modu berezian, Usurbilgo Udala eta udalbatza osatzen duten hiru talde politikoak eta senideak. “Zuengatik ez balitz, ez genuen hau guztia jakingo”. Hala dio hain zuzen, webgune berrira sartuta segituan ikusiko duzuen lelo nagusiak; “Izan zinetelako gara”. Usurbilgo oroimen historikoari buruzko informazio zabala, beraz, usurbil1936.eus web orrialde berrian aurkituko duzue aurrerantzean.

INAUTERIAK 2023

OTSAILAK 17-18 USURBIL
Gaia: FILMAK

OSTIRALA

ORBELDI eta ZUMARTERekin,
Adunako Axeri dantza
Iñauteriak dantzan
19:00 kalejira
Kiroldegitik abiatuta
20:00 emanaldia
frontoian.

LARUNBATA

12:30 ORBELDIREKIN
DANTZA!!!! frontoian
12:30 - 14:00 JOALDUNAK
kalean zehar
18:00 BURRUNBAZALE
txarangarekin kalejira.
23:00 Fan&GO errumeri
taldearen emanaldia frontoian



noqua **zumarte** **ORBELDI** **Urbilgoi Musikako Eskola** **ORBELDI** **Urbilgoi Musikako Eskola** **Urbilgoi Musikako Eskola**

EUSKAL INAUTERIAK

OTSAILAK 11 LASARTE-ORIA



16:30 | Zubietan ekitaldia
Ondoren, Zubietatik Hipodromoko zubira **KALEJIRA**

17:00 | DESFILEAREN HASIERA (Hipodromoko zubitik herritik barrena)

19:00 | SENIDETZEA, DANTZA eta SUAREN EKITALDIA
(Okendo plazan)

Amaitzeko: Partaideentzako txokolatada goxoa Okendo plazan

Eguraldi txarra eginez gero, festa 17:30ean hasiko da Oriarte-Landaberriko estalkian

Tta kun **LASARTE-ORIA**



HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA




Zeeer?!

Jarri irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta abesti ezagun baten zatia agertuko zaizu.



DOMINOAN

Dakizunez, ilargiak zikloak osatzen ditu, eta horren arabera aldatzen zaio forma, Lurretik begiratuta. Osa ezazu dominoa, forma edo fase horiek kontuan hartuta.



HANDIENETIK TXIKIENERA

Ordena itzazu izar uxook handienari 1, hurrenari 2 eta txikienerari 8 zenbakia emanaz.



L		A	R		
	R		G		A
O	A			G	R
R		G		A	
G		R	A		
A			O		G

ILgorako SUDOKUA

Osa ezazu sudokua, ILGORA osatzen duten hizkiekin (I, L, G, O, R eta A). Hizki bakoitzak behin agertu behar du lerro, zutabe eta area bakoitzeko.


HAMAIKA IKUSTEKO JAIOAK

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. 11 dira guztira.



Itzala

Lotu astronauta bakoitzari bere itzala.



Usurbilgo Herri Programa

USURBIL

Abante!

ehbildu

TAILERRAK POTXOENEAN

1. Herri Nortasuna

Asteartea, otsailak 14, 18:00

2. Herri Jasangarria

Larunbata, otsailak 25, 10:00

3. Udala Herriaren Zerbitzura

Asteartea, otsailak 28, 18:00

4. Ongizartea

Larunbata, martxoak 11, 10:00



Arantzazura oinez joateko prest

Mende laurdena bada gutxienez, irteera bat usadio bilakatu zutenetik. Udaberriko oporraldian, “Ostegun Santuan” Usurbildik Arantzazura oinez joateko ohitura dutenei buruz ari gara. Osasun krisialdiak ekimen hau egitea eragotzi ostean, ohitura hau berreskuratu eta mendizale gehiago biltzeko asmoz, ahalik eta lasterren jakinarazi nahi izan dute aurten, apirilaren 6rako antolatuko dutela 63 kilometro luze eta 2.700 metroko desnibela duen txangoa.

Geldialdiekin

Egun horretan, goizaldeko 4:45 aldera biltzen dira frontoi atzean. Aurten ere bai, 5:00etarako prestatu eta ibilaldiari ekiteko. Tarte horretan, egunaren amaieran Arantzazutik



Apirilaren 6rako iragarri dute 63 kilometroko luzera duen mendi irteera.

itzultzeko autobusean aldatzeko arropa utzi ahal da. Ibilbidean zehar, zenbait geldialdi egiten dituzte; hala nola, Mandubian hamaiketako, Zumarraga parean arropa aldatzeko aukera, Legazpian bazkaltzeko geratzen dira eta Arantzazura helduta askari baten bueltan borobiltzen dute eguna. Xehetasun gehiago aurrerago emango

ditu antolakuntzak.

Momentuz, mendizaleon agendan apirilaren 6a Arantzazura oinez joateko hitzordua jasotzea nahi dute. Ibilbide luze-ko ohitura honek usurbildarrak soilik ez, besteak beste, Tolosaldeako hainbat kide elkartu izan ditu. Informazio gehiago jaso nahi duenak, deitu dezala hona: 662 039 829.

“Eman gogor, Aitor”



Aginagatik kuadrilla handi bat joan zen Labritako partidara, Aitor Aranguren eta Erik Jaka animatzera.

Erik Jakak eta Aitor Aranguren aginagarrak Binakako Txapelketako bigarren garaipena lortu zuten aurreko larunbatean. Aginagatik joandako lagun talde handi baten babesa izan zuten Labrit pilotalekuko har-

mailetan.

Azken sailkatuak ziren, garaipen bakarrarekin. Pasa den larunbatean ordea, 22-16 nagusitu ziren Peio Etxeberria eta Beñat Rezustaren aurkako norgehiagokan. Partida pareka-

tua izan zen hasiera-hasieratik. Aginagatik joandako 50 lagunek, beraz, partida ederra ikusi zuten Iruñeko Labriten eta Aitor Aranguren eskaintako erakustaldiaren lekuko apartak izan ziren.

Irisasi BTT Hotzak Akabatzen: “Ziur gaude datorren urtean gehiago izango direla!”

Balantze ezin gozoagoa egin eta eskertza mezua plazaratu du urtarrilaren 29ko Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probaren antolakuntzak.

“Zuen ezinbesteko laguntzari esker izan da posible hau guztia antolatzea. Eguna bikain joan zen eta ibilbidean izan zen lokatz ugariak parte hartzaileak ongi nekarazi zituen. Baina, orokorrean denek oso pozik bukatu zuten ibilbidea, amaieran hamaiketako eder batekin eta hainbat opariren zozketarekin”, azaldu du hamaikagarren edizioa prestatu duen taldeak. Egin duten ahaleginarekin, hitzorduak bildutakoak (ia 500 partaide), “orokorrean gustura, eta antolaketa lanetan aritu garenok, oso pozik izandako emaitzarekin”.

Hamabigarren ediziora begira aurreikusi dutenez, “ziur gaude datorren urtean gehiago izango direla!”. Aldaketarik ez bada, 2024ko edizioa urtarrilaren 28an izango da, igandearekin.



“Orokorrean denek oso pozik bukatu zuten ibilbidea”, antolatzaileek adierazi dutenez.

eskura
klikadura eta dietetika aholkularitza

DIABETESA, HIPERTENSIOA,
GIZENTASUNA, ELIKADURA
ETA KOLESTEROL ARAZOAK

688 843 696
Zubiaurrenea 1, 1c Usurbil

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

www.artzabaljatetxea.com **943 36 91 39**

Zuen
publizitatea
hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Iñurri elkarteak: “Baliabideak eman nahi dizkiogu minbizia pasatzea tokatu zaionari”

Entzunezkoen Argia Saria eskuratu du Iñurri elkartearen (Min) bizi podcastak. Lan horren atzean dago Miren Cuervo larsartearra, orain Usurbilen bizi dena, eta hark dioen bezala, inurririk gabe ez litzateke posible izango lan hau egitea. Inurri horietako bat da Amaia Ullate usurbildarra. Bularreko minbizia du duela urtebete-tik eta Iñurri elkartean dabil. Tratamenduei buruzko hiru-garren atalean hartu du parte bere esperientzia kontatzeko. Bi emakume hauekin izan da NOAA! ibilbide honen nondik norakoak ezagutzeko.

NOAUA! (Min)bizi podcasta saritu dute Argia sarietan. Minbizia eta feminismoa lantzen dituzue bertan. Nola uztartzen dira bi kontzeptuak?

Miren Cuervo: Feminismoa bizitzako arlo guztietan sartzen dudana begirada da. Iñurri konturatu ginen minbiziaren alorrean ez dela lantzen ikuspuntu hau behar beste. Ikuspegia garai batekoa bezala da, gutxinaka ari da aldatzen. Emakumeak indartsu papelean irudikatzen jarraitzen du gizarteak, zaintzaile papelean, euren buruekin eta gainontzekoekin. Medikuek zerrenda bat prestatzen dute beharrezko “materialarekin”: turbantea, medikamentuak... inork ez du laguntza psikologiko edo nutricional edo bestelako handirik eskaintzen eta merkaturaz aprobetxatzen da, gainera.

Amaia Ullate: Bularretako kasuan, bular bakarra duten emakumeentzako bularretakoak existitzen dira, baina oso-oso garestiak dira. Alde batean zorroa dute gainontzekoek bezala eta beste aldean protesia sar diezaikezu. Supermerkatu batean merkea-



Miren Cuervo eta Amaia Ullate Min(Bizi) podcastaren egileetako batzuk izan dira.

MIREN CUERDO

“Minbizia pasatzen duten pertsonak elkar oso ondo ulertzen dute eta bakoitza mundu bat bada ere, sintoma antzekoak izan ditzakete batzuek: azazkalak ahuldu eta ilundu, bagina erabat lehortu... Eta aldaketa horiek elkarrekin partekatuta trukoak erakusten dizkiete elkarri”

goak aurkitu ditut, baina titi bakarra dugunontzat zaila da produktu hauek aurkitzea eta prezio onean erostea.

M.C: Lazo arrosa bat jartzen dute produktu askori eta horrekin prezioak garestitzen dituzte enpresek. Turbante bat bereziki minbizia duen norbaitentzat erostea edo zapi normal bat erostea prezioz oso ezberdinak

dira. Minbizia duen norbaitentzat denez, etiketa hori jartzen diote eta horrekin prezioak igotzen dituzte. Hori justifikatzeko material bereziak direla eta behar horietara egokituago daudela saltzen digute.

A.U: Nik zapia eraman izan dudanean hori esan izan didate, materiala egokiagoa dela buruko azalak arnasa hobeto hartzeko eta abar. Hori guztia ezin dugu jakin guk eta prezioak igotzeko aitzakia ederra da. Gisa honetako kontuekin eta minbizia pasatzen ari den pertsona batek senti dezakeen bakardadearekin galduta sentitze hori hazi egiten da askorentzat eta Iñurri esker, elkarri laguntzeko aukera daukagu eta elkar oso ondo ulertzen dugunez, errazagoa da bidea jende askorentzat.

M.C: Minbizia pasatzen duten pertsonak elkar oso ondo ulertzen dute eta bakoitza mundu bat bada ere, sintoma antze-

koak izan ditzakete batzuek: azazkalak ahuldu eta ilundu, bagina erabat lehortu... eta aldaketa horiek elkarrekin partekatuta trukoak erakusten dizkiete elkarri. Modu horretan feminismoa eta minbizia uztartu egiten dira, emakumeek emakumei laguntzeko aukera eskaintzen duelako.

(Min)bizi podcasta non entzun daiteke?

M.C: Podcastak euskaraz eta gazteleraz ari gara egiten. (Min)bizi izena du euskarazkoak eta Iñurriren sare sozialetan eta sarean ere aurki daitezke. Gaztelerazkoa *Dragón Cáncer* da eta atal gutxiago ditu. Euskarazkoa Argian ere topa daiteke eta gaztelerazkoa Pikara aldizkarian. Bi egiten ditugu euskaraz eta bat gazteleraz. Otsaila bukaeran amaituko dugu 13 ataleko lehen saioa, baina aurrerago gehiago egitea aurreikusi dugu.

“Pertsona bakoitzak bere modura bizi du minbizia eta jarrera guztiak dira zilegi”

NOAUA! Podcast honekin has-tearen arrazoi nagusia bakar-dade hori izan daiteke? Zen-tzu batean tabua ere bada, ezta?

Amaia Ullate: Nik neuk ez dut inoiz ere tabu modura uler-tu. Lehen aldiz ilerik gabe eta turbantearekin ateratzean oso modu naturalean egin nuen gainontzekoek zer pentsatuko duten batere axola gabe. Jen-de askok pena sentitzen du eta beste askok indartsu etiketa jartzten digute. Jende askok nar-baritzen du gehiago begiratzen zaiola turbantearekin edo ilerik gabe aterata eta hori gaizki da-ramate hainbatek. Nik oso argi izan dut beti ez naizela ezku-tatzen saiatuko edo jendearen begiradek ez nautela kikilduko. Badakit gai honi buruz hitz egingo zutela askok, baina niri bost axola. Gaixotasun bat da eta tratamenduak ondorio bat-zuk ditu zenbaitengan eta hori oso onartuta daukat. Kalean jendeak kontaktu dit minbizia pasa duela edo baduela ezagu-nen bat, askotan ia ezagutu ere



Entzunezko Argia Saria saria (Min)bizi podkastari eman zioten. Ezkerretara, Miren Cuervo gure solaskideetako bat. Argazkia: Argia.

AMAIA ULLATE

“Podcast horiek beti hor egongo dira behar duenak entzun ditzan. Eta uneoro zerbait berria erakutsiko diote, bati ez bada besteari”

egiten ez ditudanek edota inoiz gai horretaz hitz egin ez dugu-nean. Hala ere, ez zait gusta-tzen nirekin hitz egitean beti

gaia minbizia izatea. Minbizia daukat eta prozesuan nago, baina horregatik nire bizitzak ez du gai horren inguruan bakarrik buelta ematen. Na-hiago dut mila gairi buruz hitz egin beti minbiziari buruz hitz egin baino.

Miren Cuervo: Amaiak oso modu naturalean darama gaia, baina beste askok ezkutuan eramaten dute. Kasu batzuk ezagutu ditugu oso beste-lakoak. Ama batek egunero ileordea eramaten zuen gau

eta egun seme-alabek minbizia zuela ez jakiteko edo beste ba-tek bularreko minbizia pasa eta handik urte batzuetara jakin du izeba bat duela titi bakarra dena. Hark ez zion inoiz ezer esan. Beste behin, aurkezpen bat egitera joan ginen bularre-ko minbiziari buruz eta amaie-ran adineko emakume bat eto-rrri zitzaigun eta ia xuxurlaka esan zigun: “ni ere titi bakarra naiz”. Pertsona bakoitzak bere modura bizi du minbizia eta jarrera guztiak dira zilegi. Guk podcasta sortu genuen behar zutenei lagungarri egingo zi-tzaielakoan.

A.U: Nik podcastian parte har-tu dut uste dudalako nire egoe-ra kontatzeak niri ere on egiten didala, baina, batez ere, orain bidean daudenei edota eto-rikizunean gurea bezalako es-perientzietatik pasako direnei lagungarria egingo zaielakoan. Podcast hauek beti hor egongo dira behar duenak entzun di-tzan eta uneoro zerbait berria erakutsiko diote, bati ez bada besteari.

“Diru gehiago jarri beharra dago tratamendu hobekuntzarako”

NOAUA! Emakumeei eta bu-larreko minbiziari buruz ari gara, batik bat, baina Iñurri elkarrekin ez du zerbitzua horretara bakarrik bidera-tzen.

Miren Cuervo: Ez. Jende askok uste du bularreko minbiziak bakarrik dihardugula, baina denetariko minbizia dutenak gonbidatuta daude bai eta haien senitarteko, lagun eta ingurukoak ere. Paradoxa di-rudi, baina gizonezko Iñurri bakarrik daukagu eta homo-sexuala da. Bakoitzak atera ditzala bere ondorio pro-

pioak horretatik. Orokorrean, nik uste gizona askoz gehiago kostatzen zaiela gaixorik dau-dela partekatzea eta laguntza eskatzea. Gizon askok bikotea dute zutabe bakarria, horrelako egoeren aurrean eta emaku-meek, berriz, ahizpak, ama eta inguruan dituzten emaku-me guztiak. Lehen aipatutako idea hori errepikatzen da ber-riz ere, emakumeak indar-tsuak direla eta zaintza lanak egiten dituztela “super heroi” moduan. Bide honetan, gauza asko daude aldatzeko.

Amaia Ullate: Emakumeak

elkartzen gara Iñurrin, batez ere, baina gizonaekin gure esperientziak gustura parteka-tuko genituzke. Hala ere, nor-baiti zerbait eskatu beharko bagenio, erakundeei da hori. Diru gehiago jarri beharra dago minbiziari ikerketa egi-ten jarraitzeko eta tratamendu hobekuntzarako.

Horrez gain, onkologikoko arretan ere oso egoera ezberdi-nak aurkitu ditugu. Iñurrin da-bilen beste emakume bat eta biok mediku bera dugu onko-logikoan eta bata oso gustura dago eta bestearentzat zer-

bitzua oso txarra da. Azke-nean, bakoitzak bere erara bizi du. Jendeak kalean bu-larreko minbizia dudala esa-tean, batzuetan, honakoa esan izan dit: “beno, behin-tzat bularrekoa da, hori da gaur egun dagoen minbizirik errazenetakoa”. Egia da iker-ketaren bidez hobekuntzak egiten ari direla etengabe, baina oraindik lan izugarria dago egiteko eta hori lor-tuko bada ikerketek aurrera jarraitu beharra daukate, eta horretarako dirua jarri behar da.

“Mastodonen ez dago multimilioidun bat zerbitzuaren atzean, Twitterren bezala”

Interneteko Argia Saria jaso du Asier Iturralde herritarrak. Iametzako langilea da eta Mastodon sare soziala garatu eta euskal komunitatean egiten ari diren lana saritu ditu Argiak. Sarituarekin izan da NOAUA! sariaren eta proiektuaren berri izateko.

NOAUA! Interneteko Argia saria irabazi duzue Mastodon ekimenagatik. Nola definituko zenuke Mastodon?

Asier Iturralde: Mastodon 2016an sortu zen Alemanian eta 2018an sortu zen euskal Mastodon komunitatea. Kontua da Twitter, Facebook eta halako sare sozialak bat eta bakarra direla, eta beraz, ezin direla gehiago sortu. Mastodonek, aldiz, aukera ematen du nahi adina sortzeko. Beraz, ia aldi berean bi Mastodon sortu ziren Euskal Herrian. Lehenik, Izarkomek mastodon.jalgi.eus sortu zuen eta handik oso denbora gutxira, ia aldi berean, mastodon.eus sortu genuen sei eragileren artean: Azkue Fundazioa, Dinahosting, gu (Iametz), laborategia.eus, PuntuEUS Fundazioa eta Talaios kooperatiba. Nahigabe gertatu zen hau, guk ez genuen Izarkom ere Mastodon sortzen ari zen berririk eta biak batera jaio ziren ia.

Egun biek existitzen jarraitzen dute? Nola uztartzen dira?



“Mastodoneko euskal komunitateetan 4.000 bat erabiltzaile daude gaur egun”, Asier Iturraldek azaldu digunez.

ASIER ITURRALDE

“Mastodon sare sozialaren bi euskal komunitateetan ez da onartzen jarrera sexistak, xenofobo edota jazartzailerik”

Bai, biek jarraitzen dute existitzen domeinu horiekin. Mastodonen barnean komunitateak daude, baina komunitate horiek elkarrekin harremanetan daude nolabait. Zerbitzari bakoitza burujabea da, baina denak elkarri lotuta daude. Bi

domeinuetako edozeinetan izena emanda leku berera iritsiko ginateke nolabait. Beraz, batean edo bestean izena eman, berdin funtzionatzen dute eta komunitate beraren parte dira. Bi euskal komunitate hauetan ez da onartzen jarrera sexistak, xenofobo edota edonolako jarrera jazartzailerik. Badaude Mastodon batzuk horrelako jarrerak onartzen dituztenak ere, baina horiekin ez badugu ezer jakin nahi lotura horiek haustea posible da.

Zenbat erabiltzaile ditu gaur egun?

Euskal komunitateetan 4.000 bat erabiltzaile daude gaur egun. 2018an martxan jarri zenean gonbidapen sistema jarri genuen martxan kontaktuek elkarri pasatzeko eta erabiltzaile bilakatzeko. Komunikabideetan ere zabaldu genuen albisteak jendeak izena eman zezan. Orduan, erabiltzaile batzuk sortu ziren eta ondoren, Twitterren gainean Elon Muskek egin dituen aldaketek ere jende asko erakarri dute Mastodoneran Twitter utzita. Olatuekin funtzionatzen du nolabait. Argia saria jaso dugunean ere gorakada nabaritu da.

“Twitterren inguruan sortutako tirabira bakoitzeko, erabiltzaile berrien uholdea nabaritu dugu Mastodonen”

NOAUA! Twitterren azken hilabeteetan sortu diren tirabirei bizkarra eman eta Mastodon sare sozialak horretatik asko irabazi duela uste al duzu?

Asier Iturralde: Bai, erabat. Twitterren inguruan sortutako tirabira bakoitzeko Mastodonen erabiltzaile berrien uholdea nabaritu dugu.

Ez euskal komunitatearen

barnean bakarrik, baita munduan ere. Geroz eta komunitate gehiago sortzen ari dira, eta egun milaka daude. Galizian sortu berri dute, bai eta beste hainbat txokotan ere.

Hizkuntza komunitateak dira asko, bai eta gaiak sortutakoak ere. Horiek gero elkarri lotuta daude eta mundu zabala ari da sortzen Mastodon sare sozialean.

“Mastodon Twitterren oso antzekoa da”

NOAUA! Mastodon sare sozialak Twitterren antzeko logika segitzen du, ezta?

Asier Iturralde: Microblogging zerbitzua eskaintzen du, Twitterren oso antzekoa dena. Egungo sare sozialen batekin konparatu beharko banu Twitterrekin izango litzakete. Ezberdintasuna nagusia da ez dagoela multimilioidun bat zerbitzuaren atzean Twitterren bezala, eta komunitateka antolatuta dago. Elon Muskek aldaketak egin ditu Twitterren politiketan eta horiekin ados ez daudenentzat oso egokia da Mastodon. Hark adierazpen askatasun erabatekoaren aldeko apustua egin du eta egun irainak eta denetariko diskriminazioak Twitterren egitearen alde dago. Absolutista da zentzu horretan. Mastodonen berriz, komunitate bakoitzak bere arauak ditu eta gurean, behintzat, ez dira irainak eta inolako



Mastodoneko bi komunitate euskaldunek jaso dute 2023ko Interneteko Argia saria. Asier Iturralde izan zen sarituetako bat (ezkerretik hasita, hirugarrena). Argazkia: Argia.

ASIER ITURRALDE

“Elon Muskek aldaketak egin ditu Twitterren politiketan eta horiekin ados ez daudenentzat oso egokia da Mastodon”

jazarpenera eta diskriminazioak onartzen. Idatz daitezkeen karaktere kopuruetan ere Masto-

donek gehiago eskaintzen ditu, 500. Mastodon eta Twitterren ezberdintasun nagusia atzean dagoen figura da. Elon Muskek dirua egiteko makinatzen du Twitter eta dirua emango dion horri men egiten dio, nahiz eta erabaki horien aurka egin erabiltzaile asko eta asko. Mastodonen atzean ez dago irabazi asmo hori eta erabiltzaileen-

tzat sortutakoa da eta haiengan pentsatutakoa. Iragarkirik ere ez dago. Hori da jendea gehien erakartzen duena Mastodonek.

Euskal komunitateak euskararen arnasgune ere badira. Twitterren euskaldun asko gazteleraz erabiltzen du, eta Mastodoneko komunitateak euskarazkoak dira.

Twitterren amaieraz ere hitz egin izan da behin baino gehiagotan. Mastodonek hutsune hori beteko luke hala gertatuko balitz?

Bai, nik uste hori gertatuko balitz Mastodonek hartuko lukela Twitterren lekua, baina oraintxe bertan oso zaila da esatea Twitter amaituko den edo ez eta horrek zein ondorio zuzen izango litzuzkeen.

Beraz, Twitter izan edo ez, edonor gonbidatuta dago Mastodonerare.

Lurra gogotik esnatu zuten makil kolpe eta koplekin



Usurbilgo Euskal Kantu Taldearen kalejira Mikel Laboa plazatik abiatu zen eta ondoren Munalurran, Artzabalen eta Eguzkitzaldean aritu ziren kantari.

Lurrari deiadar gogotik egin zion aurreko larunbatean Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak. Koplak eta trikiti doinuekin osatu zuten Santa Ageda bezperako kalejira.

Mikel Laboa plazan hasi eta amaitutako birak Munalurra, Artzabal eta Eguzkitzal-

dea zeharkatu zituen larunbat iluntzean. Makil kolpeen errit-mora, egun honetan ezagunak ditugun kantuak entzun genituen, baita sortutako koplak ere. Modu batean zein bestean, azken urteotan etendako ohi-tura berreskuratu zuten ekitaldirako egoki jantzita joan ziren aipatu herri bilguneko kideek

eta hitzorduarekin bat egin zutenek.

Otsailaren 4ko kantu eskaeren ondorekin, gogoan izan; astelehenero biltzen segiko dute abiatu berri duten hamalagurren ikastaldiko saioetan, iluntzeko 18:00etan Udarregi ikastolaren Agerialde eraikineko musika gelan.

Otsailaren 25ean, kantu jira

Eta hileroko ohiturari segita, otsaileko azken larunbatean, kantu jiran irtengo dira berriz; hilaren 25ean 12:00etan Mikel Laboa plazatik. Antolatzaileen oharra gogoan izan; ez ahaztu kantu-liburuxka.

Futbol egokituarekin gozatuz Haranen



Futbol egokituaz gozatu zuten igande goizean hainbat eta hainbat gaztek zein haurrek Harane futbol zelaian. Gipuzkoako zenbait txokotatik etorritako neska-mutilek futbolean jolastuz lagun berriak egin eta ondo pasatzeko aukera izan zuten. Usurbil FTko kideek ere hartu zuten parte topaketan.

Plazan Bazan, 10/11 orrialdeetako soluzioak

ZURETZAT ILARGIA LAPURTUKO
KUKE GAUERO

ETA U
ITSU
ZAUDE

HIZKI-MARDATZI ALFABETOA

BERE ARGIA
ZKUSTEKO

Zeeer?! Jarri irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta abesti ezogun baten zatia agertuko zaizu.

DOMINOAN
 Dakizunez, ilargiak zirkloak osatzen dituz, eta horren arabera aldatzen zaio forma. Lurretik begiratuta. Osa ezazu dominoa, forma edo fase horiek kontuan hartuta.

ILARGIAREN FASEAK
 IZERRI
 ISEHERA
 ALBERTE
 ILGORA

HANDIENETIK TXIKIENERA
 Ordena itzazu izar uxak handienari 1, hurrenari 2 eta txikienerari 8 zenbakia emanaz.

ILGORAKO SUDOKUA
 Osa ezazu sudokua, ILGORA osatzen duten hizkiekin (I, L, G, O, R eta A). Hizki bakoitzak behin agertu behar du letra, zutabe eta area bakoitzeko.

L	G	A	R	O	I
I	R	O	G	L	A
O	A	L	I	G	R
R	I	G	L	A	O
G	O	R	A	I	L
A	L	I	O	R	G

Itzala Lotu astronauta bakoitzari bere itzala.

Hamaika IKUSTEKO jaiok
 Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. 11 dira guztira.

GAION PITXITXII
GAU ON XAPI!

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trasteleku, balkoia, terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Usurbilen 2 edo 3 logelako etxea alokatu nahiko genukeen aita eta 13 urteko semea gara. 683 548 749.

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume barentzako. 618032966

MOTORRA**Salmenta, garajeak**

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 70 metro koadro ditu eta sarre-rako atea handia dauka materialak erraz sartu eta ateratzeko. 652765583

Bigarren eskuko Ford Focus Berlina Trend bost ateko ibilgailua salgai. Berria, zaindua, garajea egondakoa. 56.000 km. 125 zaldi. Gasolina. Aurreko bi gurpilak lau urtarotarako baliagarriak. 11.900 euro. 629 553 497 (Beatriz).

Gutxi erabilitako lau gurpil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629 460 966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusia, Bizkarren. 687 406 209.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Lanaldi erdian (goizetan) etxeko lanak egiten aritzeko pertsona baten bida nabil Zubietan 695783202

Laukote okindegian langile bat behar dugu lanaldi erdiz aritze-

ko. 634 401 171.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? Animatu eta deitu hona: 680483164

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrak eman-go dizkion pertsona baten bila gabiltza. 608201745

Klase partikularrak emateko prest daudenen zerrenda osatzen ari da Udarrégi Ikastola. 943 36 12 16.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Zerbitzariak behar dira Aginaga

sagardotegian, urte osoan zehar astebukaeratan lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jantexean. 666 671 444

Lan eskaerak

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketarako egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. 643 576 129.

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskaldun bat naiz. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingelesko klaseak emateko prest daogon neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsoan zehar arratsalde zaurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

Kurtsoan zehar klase partikularrak emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta esperientziaduna. 679 219 805 (Iratzi)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkun-

tzako ikasleei klase partikularrak emateko lan bila nabil. 688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lanean zein igeltseritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

BESTELAKOAK

Erloju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patiorako sarreran, Arratzain bidetako espaloian. Erloju beltza da eta pausoak neurtzen dituen horietakoa da. Galdu duenak Udaltzaingoa galdetu, bertan utzi dugu.

Abenduaren 28an Gabonetako Haur Parketik bueltan jantzita genuen zapatiletako bat (Adidas markakoa, beltza) beste norbaitena dela jabetu gara. Gure zapatiletako bat beste batek jantzita eraman zuen. Inor honetaz jabetu bada deitu: 687 779 669.

Futbol partidak

Harane futbol zelaian:

Otsailak 11, larunbata

- 10:15 Kadete neskak:
- Usurbil FT
- Euskalduna SD

■ 12:00 Kadete mutilak:

- Usurbil FT B
- Texas Lasarteerra CF

■ 15:30 Jubenilak:

- Usurbil FT A
- Vasconia CD C

Otsailak 12, igandea

- 10:00 Kadete preferenteak:
- Usurbil FT-Lazkao KE

■ 12:00-14:00:

- Futbol Eskola.

Eskubaloit partidak

Oiardo kiroldegian:

Otsailak 11, larunbata

- Kadete neskak, 16:00:
- Usurbil K.E.
- Astigarragako Mundarro

■ Jubenil mutilak, 17:45:

- Euskal Liga:
- Saizar-Usurbil K.E.
- Bera Bera

■ Kadete mutilak, 19:30:

- Usurbil K.E.
- Caribe Berri Legazpi

Heriotzak

Aurelio

Alonso

Alonso

Abenduaren 25ean hil zen, 72 urterekin.

**Heriotzak**

Jose Maria

Zubeldia

Maiz

Otsailaren 3an hil zen, 64 urterekin

**Heriotzak**

Juana Pagola

Sagardia

Urtarrilaren 28an hil zen, 84 urterekin.

Goardiako farmaziak

Osteguna 09 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 10 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 11 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 12 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astelehena 13 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 14 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 15 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Osteguna 16 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 17 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 18 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 19 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda otsaila

10 ostirala

- Euskal Herriko XIV. Mus Txapelketako kanporaketa. 21:30-22:00, izen-ematea Aitzaga elkartearen.

11 larunbata

- Ate irekien eguna Aginagako eskolan. 11:00-12:30 bitartean.
- Euskal Inauteriak Zubietatik Lasarte-Oriara. 16:30ean Zubietako plazan.

12 igandea

- Zumetaren muralaren 50. urtemugako ekimenen aurkezpena. 12:00etan Mikel La-boa plazan.

Euskal Inauteriak Zubietan, mozorro festarako girotzen hasteko

Badatoz inauteriak! Girotzen hasteko, adi larunbatean Zubietara. Osasun krisialdiak etendako ohi-tura berreskuratuko dute otsailaren 11n. Zubietara Lasarte-Oriarekin lotuko dituen Euskal Inauteriak ospatuko dituzte. As-tebete beranduago, gogoan izan; filmen bueltako Inauteri Festa Usurbilen, joaldun, txaranga, erromeria eta Orbeldiko kalejirarekin. Ikastetxeek ere emanaldiak eskainiko dituzte.



Larunbat honetan, 'Euskal Inauteriak, Zubietatik Lasartera'.

Inauteriak 2023

Otsailak 11, larunbata

Euskal Inauteriak: Zubietatik Lasartera

- 16:30 Ekitalditxoa Zubietako plazan, eta kalejiraren hasiera.
- 17:30 Kalejira Lasarte-Orian barrena. Geldialdiak: Hipodromo etorbidea, Tajamar biribilgunea, Kale Nagusia, Largoe-nea kaleko biribilgunea (Arkupe tabernaren parean), Kale Nagusia eta Okendo plaza.
- 19:00 Amaiera, Okendo plazan: senidetzea, dantza eta suaren ekitaldia.
- Antolatzaileak: Zubietarrak, Ttakun Kultur Elkartea eta Lasarte-Oriako Udala.

Otsailak 17, ostirala

Orbeldirekin, Uztaritzeko Inauteriak

- 19:00 Orbeldi dantza taldea eta Zumarte musika eskolarekin, Adunako Axeri dantza kiroldegitik abiatuta.
- 20:00 Emanaldia frontoian.
- Antolatzailea: Orbeldi dantza taldea.

Otsailak 18, larunbata

Inauteri Festa

- 12:30 Orbeldirekin dantza frontoian! Mozorrotu eta etorri dantzara!
- 12:30-14:00 Joaldunak kalean zehar.
- 18:00 Burrunbazale txarangarekin kalejira.
- 23:00 Fun & Go plaza taldearen kontzertua frontoian.
- Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkar-atea.

Datozenak

'Filmak', Inauterietan mozorrotzeko gaia

'Ikus-entzunezkoak, filmak' izan da datorren Inauteri Festarako hautaturiko gaia. Otsailaren 18ko jaialdiari begira, horixe izango da mozorrotzeko proposamena.

Xake topaketa udal liburutegian

Usurbilgo Sutegi udal liburutegiak xake topaketa bat antolatu du otsailaren 20rako. Plaza kopurua mugatua izango denez, alde zuretik eman behar da izena liburutegian bertan. Xake topaketa udal liburutegian bertan egingo da, 17:30ean hasita.

"HerrimaMITUZ" Aginagan

"Herrian herriko pasarteak kontatu eta gai bihurtuz, gure herrien mamia, bertsoz azaleratzeko ariketa jolastia" da HerrimaMITUZ emanaldia, otsailaren 26an 18:00etan Aginagako Eliza Zaharrean iragarri dutena, Andoni Egaña eta Iñigo Mantzizidor "Mantxi" bertsolariekin eta Xabier Alberdi historialariarekin. Ekitaldirako sarrerak 5 eurotan aurrez eskuragarri, usurbil-kultura.eus plataforman.

ADA
-MASAJEAK-

633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL

Kima
MASAJE LEKUA

·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

AGINAGAKO Herri Eskola

Eskola bizirik, Agiña bizirik!



• 2-12 urte bitartekoentzat euskarazko irakaskuntza eskaintza zabala doan: ingelesa 3 urtetik aurrera, musika, internet gela guztietan, heziketa bereziko irakasle espezializatuen zerbitzua...

• Jantoki zerbitzua, bertako ostatuan sukaldatua.

• Eskola-txikien artean koordinatutako proiektu konstruktibismoan oinarrituz.

• Eskola-txikien arteko elkarbizitza: irteerak, antzerkiak, kirola...

• Baratza: Auzokoek, familiek eta eskolak jorratzen duten eremua; uzta ekologikoa sustatuz.

• Eskola ordur kanpoko kirola.

• Goizeko gela (8:00-9:30)

Izena emateko epea: otsailaren 13tik 24ra

9:30etik-16:30tara

baikara

Gipuzkoako IKEn federazioa



Usurbilgo Udala



AGINAGAKO HERRI IKASTETXEA

Erriberako Kalea 7

20170 AGINAGA

Tel. 943 372044
Faxa: 943 372044

012261aa@hezkuntza.net



Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizue:

- **0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.**
- Hezkuntza Integrala: Konpetentzietan Oinarritutako Hezkuntza.
- Hezkuntza eredu propioa: Konfiantzaren Pedagogia egitasmoa garatzen dugu.
- **Ikastola Berritzailea:** eraldaketa didaktiko, metodologiko, eta teknologiko etengabea sustatzen dugu.
- **Ikastola Euskalduna:** euskaraz irakatsiz eta ikasiz, euskaraz biziz, euskaldun konprometituak hezten dihardugu.
- **Irakaskuntza Eleanitza:** ingelesa 4 urtetik aurrera eta frantsesa, hautazko gaia, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- **Herritarra:** Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildutako ikastola.
- **Ikastola Inklusiboa:** guztion ikastola bultzatzen dugu, aniztasuna, garapen-erritmo eta behar espezifikoak aintzat hartuz.
- **Baso eskola:** basoa gela bihurtzen da. Espazioa eta bertan aurkitzen diren naturako elementu guztiak ikasteko baliabide dira.
- **KiVa ikastola:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean 2017tik aurrera beste 56 ikastolekin batera.
- **Autobusa auzo eta herrietara:** Santuenea, Aginaga, Zubieta eta Lasarte.
- **Jangela:** bertan sukaldatutako herriko produktuak.
- **Zaintza zerbitzua:** 08:00etatik 09:00etara eta iraila eta ekainean 14:30 16:30era.
- **ZIRIMARA aisialdi Proiektua eta eskolaz kanpoko jarduerak:** kirolak, dantza, xake eta an-tzerkia.
- **Beka sistema propioa:** kuoten %100 bonifikatua.

55 urteko esperientzia Usurbilen.

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)

Otsailaren 13tik 24ra (biak barne)

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6
LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12
DBH: 12 - 16



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea, USURBIL

www.udarregi.eus